

Irurtzun-Andoain autobidea



Jose Migel Etxetxikia, Azpirozko alkatea.

JOXE

Etxetxikia: «Jendeak beldurra zeukan hasieratik, baina...»

Azpiroztarrek ez zuten begi onez ikusten autobidea, baina haren aurka azaltzeko gogorik ere ez zuten, alkateak dioenez. Administrazioaren jarrerak kezkatzen zituen eta protestarik egin gabe aguantatu dituzte lurjausiak, ur mozketak eta teilatutik etxe barrena sartutako harriak.

A.U. / AZPIROTZ

Makinak oraindik luzaroan ikusi beharko dituztelako susmoa dute azpiroztarrek. Jose Migel Etxetxikia alkateak dioenez, «jendeak hasieratik esaten zuen ez zela posible egitea eta oraindik ere uste dute ez dela posible». Berak autobidea nola edo hala egingo dutela uste du ordea: «Egingo dute, hori seguro. Kostatzen dela kostatzen, egingo dute».

Azpirozko herria ez da autobidearen kontra azaldu publikoki, baina apoiorik ere ez du eman. Alkatearen iritziz, «hemen problema politikoa izandu da. Nahi zuten herri honek beste batzuek bezala autobideari apoioa ematea. Baina guretzat hori oso gogorra zen».

Izan ere, Azpiroztarrek autobidearen desabantaila guztiak ezagutu ditu, baina probetxu gutxi aterako dio bukatzen badute, herriak ez bait dauka sarrerarik. Behetik, sei kilometrotara, errepide generala pasatzen da eta gainetik, berrehun metrotara, autobidea izango du orain. «Guk hori ezin genion inolaz ere baietz esan», azpimarratu du alkateak.

Lanak hasi bezain pronto izan zi-

ren lehen lurjausiak. Alkateak gogora ekarri duenez, hiru lurjausi handi izan ziren hasieran. Horietako batek borda bat suntsitu zuen eta beste batek ur toma bat lurperatu zuen. Lurjausien ondorioz, bi segurtasun sistema probatu zituzten. Lehenengo sare metalikoak jarri zituzten, baina harriek zulatu egiten zituzten. Gero zangak egin zituzten, hiru maila ezberdinetan, harriren bat erortzen bazen bertan gelditu zedin. Leherketak hasi direnetik zangak ez dute ezertarako balio ordea, harriak airez ateratzen bait dira ez tandaren ondorioz.

Leherketak hasi berriak dira eta orain arte bi besterik ez dituzte egin. Aurrenekoan ez zen ezer gertatu, baina azaroaren 21ean aurretik abisatu gabe egin zuten leherketa eta harriek zenbait etxetako teilatutako zuluak zituen eta ardi bati harri batek lepoa moztu zion. «Artzaina ere bertan harrapa zezakeen», dio Etxetxikiak.

Urazen arazoak areagotu egin ziren urrian. Euriteen ondorioz, filtrazioak izan ziren eta azpiroztarrak ur garbirik gabe egon dira bi hilabetez, azaroaren amaieran herriko iturri garbi bakarra bonbeatu zuten arte.

Etxetxikiak dioenez, «jendeak beldurra zuen hasieratik, baina...Badakizu, hemen jende gutxi gara eta indarra ere gutxi». Kontra azalduz gero, Administrazioak baztertuko zituela uste zuten herritarrek eta, alkatearen arabera, horrelaxe gertatu da, «herriari agindu zizkieten hobekuntzak ez dituzte egin eta». Tartean espropiazioak ere baziren. Segurtasun neurriak direla eta, hasieran esandako espropiazioak bihurtu egin dira.

Guy Héraud: «Demokraziarik ez dago autodeterminaziorik gabe»


Gaurko estatuen oinarri «zentsugabekoak» gaitzetsi ditu Miarritzen

Europako etnien defentsan bizi osoan ibili den Zuzenbide irakasleak estatuen oinarriak justizia eta raziotaltasunaren aurka eraikiak izan zirela ironia handiarekin salatu zuen Miarritzen. Populuen duintasun eta askatasunak Europako federazio bat eskatzen duela frogatzen aritu zen bi orduz, Arroka eta Gizona Gizon elkarteek gonbidaturik.

L. ETXEZAHARRETA / MIARRITZE

Udaletxeko gela batean, Jakes Abeberri alkateordeak Guy Héraud aurkeztu zuen, gogoraziz honek herrien askapenerako mugimendura begira izan duen jarrera profetikoa. «Hélène Carrère d'Encausse berak ez du Soviet Batasuneko herrien dinamika abertzalea ulertu» zioen, eta azpimarratu zuen «bakarretarik izan dela ulertu duena gaur egun nabaritzen den kontraesan nazionala».

Guy Héraud alsaziarra eta Nazioarteko Zuzenbidean espezialista ezaguna da Ipar Euskal Herrian. Bertara dator aspaldidanik eta Enbata mugimendu abertzalearen hasierako pentsakera federalistaren oinarriazaletarik izan zen. Ostegun arratsko hitzaldiaren gaia zuen 'Populuen Europa, amets ala gertakari'. Solasaren ardatza Europako 'Estatu-Nazioen' kritika garratza izan da, hauen bidegabekeriak ironia sarkor batekin gaitzetsiz. Egoera absurdo baten aurrean, populuen errealitate



Guy Héraud, alsaziarra eta Nazioarteko Zuzenbidean aditua.

L.E.

naturala agertu du, eta horretarako demokraziaren bide ezinbestekoa autodeterminazioaren urratsa dela erakutsi.

«Estatuak indarra eta zortearen produktuak» direla frogatzen aritu zen adierazpen asko erabiliz. Indarrez eraiki estatuak, gudaldi batzuen zortezko bukaera batzuek definitu dituztela argitu du. Indarrez baliatzea injustizia iturri dela eta zote hori irrazionaltasunarena dauka Héraudek. Aldiz zioen «populuen borroka Justizia eta raziotaltasunarena da».

Injustiziak ekartzen duen «alienazio etnikoa» ikertu zuen, eta honen bost alderdi nagusi agertu: alienazio politiko, demografiko, ekonomiko-soziala, hizkuntzarena eta moral edo psikologikoa. Lehenak ekarri instituzioen ukatzea gutxiengo ego-

eran jarri ondoren, bigarrenaren 'submertsio etnikoa' jende arrotza ekar araziz zehaztu zituen. Eskubide pertsonalak onartzea eta kolektiboak ukatzea, demokrazia faltsu baten itxura ematea dela gogorki salatu zuen. Alienazio morala edo psikologikoa aipatzen, menperatuaren jarrera azaldu zuen: dominatzaileen baloreak beretuz, bere nortasuna ukatuz, bere burua hiltzen duen norbait da. Autodeterminazioaren gaia aipatu zuen: «Demokrazia, hori gabe demokrazia faltsu bat baizik ez da». Herri bat bizi dadin bost oinarriko puntu obratu behar dira Guy Hérauden ustez: izan dadin egitura baten bidez, definitua izan dadin lurralde batean, burujabetasuna ukan dezan, bere burua antola dezan berak eta kudeantza ukan dezan.

Aldibaterako kontratazioa

50 ADMINISTRARI LAGUNTZAILE OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTURAKO. (ERREF.: B91/C17).

EGINKIZUNAK:

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren 1991eko kanpainaren gestioa aurrera eramaten laguntzea.

ESKAKIZUNAK:

- Gutxienez 18 urte izatea.
- Eskola graduatua, L.H. I edo baliakideren bat.
- Gipuzkoa barruan lekuz aldatzeko prest egotea.
- Prestakuntzako ikastaroa gainditzea.

LANTOKIA:

Ogasun eta Finantza Departamentuak Gipuzkoako Herrialde Historiko barruan horretarako egokitutako edozein bulegotan.

OINARRIAK ETA INSTANTZIAK:

Gipuzkoako Foru Aldundiko Informazio eta Erregistroko Negoziatuan jaso daitezke (Gipuzkoa Plaza, z/g., Donostia).

Eskaerak aurkezteko epea 1991ko Abenduaren 19an bukatuko da.

Donostia, 1991ko Abenduak 7.

IDAZKARI TEKNIKOAK,
Jorge Balerdi



Gipuzkoako Foru Aldundia

Lehendakaritza eta Araugintza Departamentua